



Sua zaintzen

Glaukoma ta Bad Sound

Bonberenea Ekintzak, 2015

Mezuak eta errimak batzen

GLAUKOMA ETA BAD SOUND SYSTEM taldeak lagunak dira, anaiak. Bien artean bi abesti sortu dituzte eta bi abesti horiekin osatu dute *Sua zaintzen* lana. 10 hazbeteko binilozko disko bat da (alde bakoitzean kantu bat), baina bi kantuak CD batera ere bildu dituzte. Beraz, *Sua zaintzen* lana eskuratzen duenak biniloarekin batera CDa eskuratuko du.

Glaukoma taldeko kideak Tolosakoak, Donostia-koak eta Irungoak dira. Asier Arandia (baxua) eta Juantxo Arakama (ahotsa) tolosarrak, Jokin Albisua eta Iker Pando gitarra jotzaileak donostiarrak, eta Pablo Rubio (bateria) irundarra. Tolosan entseatzen dute. Selektah Stepi eta Moro, Bad Sound taldeko bi kideak berriz, Irungoak dira.

Musika egiteko garaian bi taldeen ikusmoldeak ez dira berdinak, baina bai osagarriak, diskoko bi abestietan antzeman daitekeenez. Emaizta ederra da: Glaukomaren eta Bad Sound System taldeen ukituez landutako eta burututako bi reggae-hip hop-dancehall abesti. Bi taldeak elkarrekin lan egiten ederki moldatzen direla nabarmena da, eta oso ongi pasatzen dutela. Giro eder horren ispilua dira diskoko bi kantuak. Elkarlanean aritu dira, indarrak batu dituzte eta elkar aberastu dute.

“Urtetako harremana daukagu eta bi taldeen artean kantu pare bat grabatzea erabaki genuen”, Juantxo Arakamaren hitzetan. “Esperimentatzeko gogoia geneukan, bi taldeak batu eta ea zer ateratzen den ikustea. Oso gustura egindako lana izan da, eskuz, eta gustu eta mimo handiz. Guretzat gutzizia moduko bat izan da, gozoki bat”.

ekoizpena ederki egina dago, eta doinua indartsua da. Erritmoez eta melodiek berehala harrapatzen zaituzte eta gorputza oharkabean mugitzen hasten zaizu. Moldaketak ederki eta neurrian eginak daude, eta hitzak eta errimak oso ongi landuak daude.

Batak bestetik abestiaren oinarria Glaukomak egin du eta *Bizitzaren antzerkia* abestiarena Bad Soundek. Lehen kantuan bi taldeek nola elkar ezagutu zuten kontatzen dute: “Bi gera bat, bata besteari lotuta erabat; zutik biak bat!; bihotzez elkarri laguntzen, errimak errima sentitzen, mezu ta errima batzen, hotzai



beroa jartzen; bakarrik sentitzen diren gizon ta emakumeentzat reggaea!”. Bigarren kantua kritikoagoa da, egungo egoeraren inguruan hitz egiten du: “Argia iparririk gabeko gazte onei ta sua egia zor diguzuten hoiei; zapaltzen gaituztenak anker portatzen dira; zenbat negar bizitzaren antzerkian?; askatu neska, mutil, gizon ta emakume guztik!”.

Lana aurtengo udaberrian osatu dute. *Batak bestetik* kantua grabazioa eta nahasketak Karlos Osinagak egin ditu Bonberenean. *Bizitzaren antzerkia* kantua grabazioa Selektah Stepi egin du Gua estudioan, Irungo Mosku auzoan, eta nahasketak Maiketek Mik estudioan, Beran. Bi kantuen masterizazioa Karlos Osinagak egin du Bonberenean, diseinuaz Punker (Rebel Sounds) arduratu da eta maketazioaz Imanol Urizar. Grabazio saioetan Glaukoma eta Bad Sound taldeetako kideez gain Aitzol Moneo (tronboia) eta Ander Altuna (tronepetea) aritu dira.

Sua zaintzen lana aurkezteko bi taldeek elkarrekin hainbat emanaldi egingo dituzte: Arrasateko gazte-txean urriaren 29an, Gasteizko Jimmy Jazz aretoan urriaren 30ean, Tolosako Bonberenea etxean urriaren 31n, Bilboko Stage Live aretoan azaroaren 13an eta Iruñeko Akelarre aretoan azaroaren 14an. *Batak bestetik* eta *Bizitzaren antzerkia* kantuak ez ezik, Glaukoma eta Bad Sound System taldeen hainbat kantu elkarrekin joko dituzte. Emanaldi bereziak izango dira, dudarik gabe. ■

Joxi Ubeda